

# Gehigarria



Euskal Kultur  
Erakundearen  
laguntzaz egindako  
gehigarria

## Laborarien kantuak

- 1 Mila pasata bederatzia ehun hogeitasei urte da salbatzailea etorri zela bekatarien artera sendimenduak bertsu berritan orai noa erratera geroztik huna jende gaixtoen arraza galdu ote da.
- 2 Lehen hemeretzi pasatu dira hau hogeigarren mendea aunitzek diote norat goaz gaixtotua da jendea egiak ditut publikatuko gezurra balitz hobea neronek lehenbizi urrikari dut langile miserablea.
- 3 Mundu hau balitz zabalagoa halere gehiago galde desira dugu neke gutirekin gauza guzia debalde gure tartera heldu ez bada gaitz gaixto eta uholde nahi eza ez oraindikelgarrentzat hasi beharrak gerade.
- 4 Kapitaliztak dira gradutan jende pobrea soldadu partikulazki laborariak kontrario sobra du aberats puxant errege haundi dutenak hoinbertze gradu denak goseak hil behar dute lurak emaiten ez badu.
- 5 Gure Jainkoak zabaldu zuen oihal ederra hau da lurra eta berritz ere baluke lana zuzentzekotan makurra fede onean bizi garenak jende gaixtoen beldurra egiak ez du gehiago balio nausitua da gezurra.
- 6 Adinak, gaitzak eta aizkorak bakandu ditu oihanak horiek guretzat utzi zituzten orain mundutik joanak gure aldetik landa ditzagun ondokoentzat ordainak hori egiten ez bada gure semeek zer lana.
- 7 Belar bezain usu atera zaizkigu etxe berriak ertxi ta labor altura guti iduri xori kafiak horietan nahi ta ez bizi beharko duten familia tikiak horra zer gizas apaindu diren Euskal Herriko tokiak.



Olandeiko  
Fifinen  
eskutik

## Armorako Maixani eskainiak

Senperen Gaxinabordan sortua Ziburun bizi den J.B. Tapiaren ahotik

Airea: «Saratarra naizela»

- 1 Ezkontzeko hasita hau da desgrazia (bis) muthil faltsuarekin tratatzen hasia Ni fida nintzen baino haren malezia horrengatikan nago bazterrera utzia publikatzera noa aferu guzia.
- 2 Mutil kuriosa alto ta gizena (bis) ikustera jiten zautan ahal zuen maizena ni ere haren etxean bietan izana geroztik urrikitan egoiten naizena ez bainuen uste zela holako gizona.
- 3 Errematismoarekin eri naiz egotu (bis) orduan ikustera ez zautan agertu Erietara goizik behar zuela sartu sinesten nihozkan eta aise nau tronpatu nere bihotz gaixoa daut gogor kolpatu.

Muntra eta erreztuna  
linga eta baxera  
arno eta azukre  
jaunari eskerra  
gostairik genituen  
bilduak etxera.

...  
...

12 bertsu zituen kantu honak, J.B. Tapiak buruz eta gogo onez eskaini dizkigu lau hauek.



Bertze kantu bat burutu gabe

Gau ilun batez uste gabean lo zagolarik bere ohantzean Arrano bati lotu zitzaizkon berrehun bele batean gosta zaiote ezin haurdikiz hoinbertze etsai bertzen artean hegal bat ere kendurik utzi halere dabil airean.

Eskas diren bertsuak, dakienak igor ditzala ttipi-ttapa edo berdin Oxtikeneart